

Diagramak egiteko lehenbizi datuak behar ditugu. Horregatik, normalean taula bat erabiltzen da grafikoa egiteko.

Etxean ordenagailua duten 15 urte eta gehiagoko biztanleak, ezaugarri sozioekonomikoen arabera. 2007

	Biztanleria (milaka)
Guztira	1.203,4
Lurralde Historikoa	
Araba	175,1
Bizkaia	651,3
Gipuzkoa	377,5
Sexua	
Gizona	599,4
Emakumea	604,0
Adina	
15 - 24 urte	181,5
25 - 34 urte	260,6
35 - 44 urte	261,8
45 - 54 urte	249,5
55 - 64 urte	158,2
≥ 65 urte	92,3
Heziketa maila	
Lehen mailakoa	202,1
Bigarren mailakoa	652,7
Goi mailakoa	348,8
Jarduerarekiko lotura	
Ikasleak	147,6
Landunak	749,8
Ez-aktiboak/Langabeak	306,0
Familia mota	
Seme-alabekin	989,3
Bikotearekin	155,8
Bakarrik bizi direnak	58,2

Demagun sektore-diagrama bat egin nahi dugula lurralde bakoitzean ordenagailua erabiltzen duen pertsona kopuruari buruzko datuekin. Demagun, orain, erabileraren ehunekoa atera nahi dugula.

Kalkulu-orria erabiliz honako urratsak eman behar ditugu:


- Aukeratu eta kopiatu taula egiteko erabiliko dituzun datuak, baina guztirakoa kontuan hartu gabe.

Lurralde Historikoa	
Araba	175,1
Bizkaia	651,3
Gipuzkoa	377,5

- Ireki kalkulu-orriaren orrialdea eta kopiatu bertan datuak, baina kontuz, gelaxka kopuru bera aktibatu beharko duzu eta; lurraldeen izenak agertzea nahi baduzu, balio bakoitzaren gainean edo ondoan dagoen laukitxoan idatzi beharko dituzu.


- Hartu datu-multzo osoa eta sakatu grafikoen botoia. Orain aukeratu zein grafiko mota nahi duzun eta jarraitu agertuko zaizkizun ohar guztiak "amaitu" arte.

- Kalkulu-orrian agertzen den marrazkia ebaki edo kopiatu dezakezu gero lanerako hartu dugun orrian itsasteko. Nahi baduzu, orria inprimatu dezakezu gainera.



Ezkerrean ikusten duzun hori gutxi landu den grafikoaren bertsio bat da.

Bertsioa hobetu nahi baduzu sartu datu gehiago diagraman. Horretarako, itzuli kalkulu-orrira eta landu grafikoaren ezaugarriak.



Saia zaitetz balioak marrazkian agertzen diren moduan ematen.

❖ Egizu sektore-diagrama bat ordenagailua erabiltzen duen pertsona kopurua sexuaren arabera bereiziz. Horretarako, lehenbizi hurrengo taulako datuak kopia behar dituzu eta gero jarraitu aurreko orrialdean ageri diren urratsak.

Sexua	
Gizonak	Emakumeak

(Sektore-diagrama)

❖ Egizu sektore-diagrama bat ordenagailua erabiltzen duen pertsona kopurua adin-tartearen arabera bereiziz. Horretarako, lehenbizi hurrengo taulako datuak kopia behar dituzu eta gero jarraitu aurreko orrialdean ageri diren urratsak.

Adina	
15 - 24 urte	
25 - 34 urte	
35 - 44 urte	
45 - 54 urte	
55 - 64 urte	
≥ 65 urte	

(Sektore-diagrama)